



**2011KO MAIATZAREN 11KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaikako maiatzaren hamaikan, iluntzeko zazpietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo eta Iñaki Saldaña Herrero.

Xanet Barreras Jauregi zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak, bilkurari hasiera eman ondoren, esaten du, eguneko gai zerrendatik kanpo eta presazko izaeraz Beneditarren Artxibategia Fundazioari dirulaguntza gaia sartzea proposatzen duela.

Gobernu Batzordeak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, onartu egiten du proposamena.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2011ko apirilaren 11n egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2011ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 5 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA SEI MILA ETA ZORTZIEHUN euro ETA HIRUROGEITA ZAZPI zentimo (106.800,67 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

**III.- HIRIBARREN, ELOSEGI ETA HIRIGOIEN KALEEN HIRITARTZEKO ETA HIRIGUNEAN BIZIKLETARI ETA OINEZKOENTZAKO BIDE ZATIA SARTZE LANEN 2. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-**

Hiribarren, Elosegi eta Hirigoien kaleen hiritartzeko eta hirigunean bizikletari eta oinezkoentzako bide zatia sartze lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoak eta Javier Santos arkitekto teknikoak lanen 2. obra-egiaztagiria luzatu dute. Obra-egiaztagiri honen zenbatekoa LAUROGEITA BAT MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEI EURO ETA BERROGEITA HAMASEI ZENTIMO (91.740,56 €) da eta obra burutzen ari den enpresa Sasoi Eraikuntzak, S.L..

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.



Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Hiribarren, Elozegi eta Hirigoien kaleen hiritartzeko eta hirigunean bizikletari eta oinezkoentzako bide zatia sartze lanen 2. obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

#### IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

##### Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 615 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimendu gastuetarako hilean 92,5 €ko diru-laguntza ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

##### Telealarma zerbitzua.-

- 11-12-002 zbk.dun esped.: telealarma zerbitzuan baja ematea 2011ko apirilaren 12an, berak hala eskatu duelako.

#### V.- UDAKO KIROL KANPAINA .-

Kirol Batzordetik Udako Kirol Kanpaina 2011 egitasmoa aurkezten da. Kanpaina hau ekainaren 27tik uztailaren 22ra bitartean burutuko da. Kanpaina honen aurrekontua hamalau mila bostehun eta hogeita hemezortzi eurotako (14.538 €) da eta ikastaroen diru-sarrerak eta Foru Aldundiko dirulaguntza kontutan izanda aurrikusitako defizita bi mila zazpiehun eta hirurogeita zazpi (2.767 €) eurotako da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, egitasmoa, bere espedientean dagoena, aztertu ondoren, Udako Kirol Kanpaina 2011 hau onartzea erabakitzen du.

#### VI.- BENEDITARREN ARTXIBATEGIA FUNDAZIOARI DIRULAGUNTZA.-

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Lazkaoko Udalak akordioa izenpetuta dute Beneditarren Artxibategia Fundazioaren gastuei aurre egiteko diru-ekarpena egiteko. Akordio horretan esaten da Gipuzkoako Foru Aldundiak funtzionamendu gastuei aurre egiteko diru-zenbatekoa jarriko duela, zenbateko hori urtean 80.000 €tan finkatzen delarik eta Lazkaoko Udalak mantenimendu gastuei aurre egiteko diru-zenbatekoa jarriko duela, zenbateko hori urtean 16.000 €tan finkatzen delarik.

Hau horrela izanik, Beneditarren Artxibategia Fundazioari hamasei mila (16.000 €) euroko ekarpena egitea proposatzen da.

Tokiko Gobenu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Beneditarren Artxibategia Fundazioari hamasei mila (16.000 €) euroko dirulaguntza ematea onartzen du.



**VII.- UDALBIDERI DIRULAGUNTZA.-**

UDALBIDE Elkarlan Elkarteari lau mila eta bostehun (4.500 €) euroko dirulaguntza emateko eskariaren aurrean.

**AURRETIKOAK**

- I.- UDALBIDE Elkarlan Elkartearen xede nagusiak dira euskara babestu, garatu eta sustatzeko elkartasun fondoa eratzea eta euskal lurralde guztietako udal eta herritarren arteko harremana bultzatzea; hartara, helburua du ekimenak sustatzea hizkuntza, kultura, kirola, ingurugiro, lurralde antolaketa, ekonomia garapena eta gizarte ongizate esparruetan, baita udalerriek eskumenak esleituak dituzten gainerako gaietan ere.
- II.- Egiaztatu da kreditu egokia eta behar adina dagoela, dirulaguntza emateak berarekin dakartzan betebeharrak ekonomikoak aurre egiteko.
- III.- Udal honetako aurrekontuen betearazpen oinarrietan UDALBIDE Elkarlan Elkartearen alde dirulaguntza emateko aurreikuspena ezarri da, izen eta guzti ezarri ere, eta egiaztatu da elkartearen xedeak bat datozela udal eskumenekin, eta horrek frogatzen du bete egiten dela interes publiko eta sozialarekin bat etortzeko baldintza, huraxe baitute xede bai udalerririk honek bai aipatu elkartearak.

**ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

Ikusirik indarra duten arauen artean aplikatu beharrekoak, bereziki UDALBIDE Elkarlan Elkartearen Estatutuak eta haren sarrera Bazkunen Erroldan, eta orobat ikusirik Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra eta Toki Erakundearen Zerbitzu Arautegia.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, eta bertaratutako bere partaide guztien adostasunarekin, zera

**ERABAKITZEN DU**

**Lehenena.-** UDALBIDE Elkarlan Elkarteari zenbateko honetako dirulaguntza ematea: lau mila eta bostehun (4.500 €) euro, 2011ko ekitaldirako jarduketara programan aurreikusita dauden jarduerak finantzatzeko, indarra duen antolamendu juridikoarekin eta udal eskumenarekin bat baitatuz jarduerak horiek.

**Bigarrenena.-** Ebazpen hau jakinaraztea UDALBIDE Elkarlan Elkarteari.

**Hirugarrenena.-** UDALBIDE Elkarlan Elkarteari onetsitako zenbatekoa ordaintzea, dirulaguntzaren baldintzak arautzeko hitzarmen bat aldeztatu aurretik izenpetuta.

**VIII.- BILERAREN AMAIERA.-**

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hogeirenean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

